



# AKTA

## Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2007ko irailaren 3a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena

**HASIERA-ORDUA:** 19:00    **AMAIERA-ORDUA:** 19:04

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Ainhoa Leunda San Sebastián, M<sup>a</sup> Carmen Velasco Garro, Jose M. Goiburu Mancisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Oier Sarobe Escudero, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain, Jesus Jose Juan Rodríguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi



## Aztergai zerrenda

PUNTU BAKARRA.- Kontu ematea, Ainhoa Leunda San Sebastian Andreak aurkeztutako Orioko Udaleko zinegotzi karguari uko egiten dion idatzia.

## Esan-eginak

**PUNTU BAKARRA. KONTU EMATEA, AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN ANDREAK AURKEZTUTAKO ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEN DION IDATZIA.**

Idatzi hau sinatzen duen Idazkariak hitza hartzen du eta **AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN** andreak, 2007ko maiatzaren 27an izandako Udal-hauteskundeetan Orioko EAJ-PNV Alderdi Politikoaren zerrendan 4. hautagaia zen aldetik eta Orioko Udaleko zinegotzi hautetsi izendatua, Udalbatzarrari zuzendutako idatziaren berri ematen du. Idatzi horretan Orioko Udaleko Zinegotzi karguari uko egiten dio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 9.4 artikulua ezarritakoaren arabera, arrazoi pertsonalak direla medio eta ezin duelako zinegotzi karguan jarraitu, eta beraz, eskatzen du onartua izan dadila uko egitea eta bere karguaren zinegotzi aldaketa, ekainaren 19ko Hauteskunde-Legedi Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkaritza Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera.

Era berean, Udalbatzarrak **ANGEL DEL HOYO BRAVO** jaunak, 2007ko maiatzaren 27an izandako Udal-hauteskundeetan Orioko EAJ-PNV Talde Politikoaren zerrendan 5. hautagaia, aurkeztutako idatziaren berri jaso du, eta adierazten du **ONARTU** egiten duela Orioko Udalean EAJ-PNV Talde



Politikoaren zinegotzi izendapena **AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN** andrearen ordeztuz, Hauteskunde-Legedi Orokorraren Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkari Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera, eta **DEKLARATZEN DU** ez dagoela aipatu Hauteskunde-Legedi Orokorraren Lege Organikoaren 6, 177 eta 178 artikuluetan jasotako inongo hautagarri ezintasunen baten barne; hori guztia, Orioko Udaleko Zinegotzi hautetsi izaeraren egiaztagiria luzatu ahal izateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaiari aplikagarri zaion eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, gaia eztabaidatu ondoren, **AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (**11 BAIEZKO BOTO**), Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, Udal honetako Udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU**:

**1.- ONARTZEA AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN** andreak EAJ-PNV Talde Politikoaren aldetik Orioko Udaleko Zinegotzi karguari egin dion ukoa, eta **ANGEL DEL HOYO BRAVO** jaunak Orioko Udalean EAJ-PNV Talde Politikoaren zinegotzi izendapena onartzearen berri jaso izana, **AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN** andrearen ordeztuz.

**2.- IGORTZEA** akordio honen egiaztagiri literal bat Madrileko Hauteskunde-Legedi Orokorreko Lehendakariari, EAJ-PNV Talde Politikoaren aldetik Orioko Udaleko Zinegotzi hautetsi izaeraren egiaztagiria jaso dezan **ANGEL DEL HOYO BRAVO** jaunaren alde, **AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN** andreak uko egitea aurkeztu ondoren hutsik geratu den eta Udalbatzarrak onartu duen kargua; hori guztia aipatu Hauteskunde-Legedi Orokorraren Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkari Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**